

58. FITXA. Hiri-eremuetatik kanpoko kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzen programa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana, NEXT GENERATION 2023 - Gipuzkoako Foru Aldundia

Nori zuzenduta: Erakunde publikoak; toki erakundeen elkarteak eta erakunde pribatuak (irabazi asmoa eduki nahiz ez); Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki erakundeen mendeko erakundeak (autonomikoak edo estatukoak)

Sartzeko esteka: [Egoitza - Egoitza elektronikoa - Egoitza \(gipuzkoa.eus\)](#)

Erreferentziazko araudia: [2023/02/22ko GAO, 36. zk.](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 108.475,00 €

Aurkezteko amaiera-data: 2023ko martxoaren 23a

Laburpena

Hiri-eremuetatik kanpoko kultur eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak. Laguntza horiek Next Generation funtsen bidezko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren C.24.12.P1 osagaian daude jasota.

Dirulaguntzen lerro honen bidez, hiri-eremuetatik kanpoko kultura-prozesuak aktibatu nahi dira, lurraldearekiko banakako eta gizarteko loturetan sakonduko dutenak, landa-inguruneetako kultura-eremuan lan-aukera berriak, enplegu egonkorak eta kalitate onekoak eskainiz.

Honako hauek izan daitezke laguntzaren onuradun:

- Erakunde publikoak
- Toki erakundeen elkarteak eta erakunde pribatuak (irabazi asmoa eduki nahiz ez)
- Toki erakundeen mendeko erakundeak (autonomikoak edo estatukoak)
- Langile Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden profesionalak

*Onuradunek, gainera, aurkeztutako proiektuarekin edo jarduerarekin bat datorren helburu sozial bat izan beharko dute.

Kanpo geratzen dira:

- Ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan aurreko deialdiren batean onuradun izan diren proiektu edo jarduerak.
- 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsona juridikoak.
- Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta legezko debekua edo desgaikuntza dutenak ere, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 25. artikuluan eta azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.

Jarduera-lerroak

Laguntza hauen helburua kultura sektorearen gaitasunak indartzea eta garatzea da, hirigune handietatik harago sare sendoa lortzeko eta, horrela, lurraldean kultura jarduera handitzen laguntzeko, gizartea aldatu, dinamizatu eta eraldatzeko motorra dela ulertuta.

Finantzatutako proiektuek eta jarduerak ekarpen garrantzitsua egin beharko diote Gipuzkoako kultura ekosistemari, eta honako helburuetakoren bat lortzen lagundu:

- Gaur egungo kultura-jarduera, -sorkuntza, -praktikak eta -prozesuak bultzatzea, komunitateekin eta horien gizarte-, lurralde- eta kultura-testuinguru espezifikoeekin lotura estuan. Hori guztia gaur egungo munduak planteatzen dituen erronken testuinguruan landa-ingurunerako kontakizun, imajinario, irudikapen, estetika, balio eta jarrera berriak eraikitzen lagunduz burutuko da, baita orainarekin, ondarearekin, ezagutzarekin eta jakintza tradizionalekin elkarrizketan balioa emanez ere.
- Landa-ingurunean diharduten kultura- eta sormen-sektore eta -eragileen dinamizazioa, modernizazioa eta berrikuntza sustatzea, enplegua sortzen lagunduz. Horiek ez ezik, profesionalizazioa eta tokiko, eskualdeko eta nazioko sare profesionalak sortzea sustatuko da, baita sektore horietan genero-berdintasuna lortzen laguntzea ere.
- Gizarteratzea sustatzea eta herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzea kultura-jardueran, parte-hartze demokratikorako, ongizaterako, osasunerako eta gizarte- eta lurralde-kohesiorako tresna gisa. Helburu hauen barruan berriaz zainduko dira genero-berdintasunerako eta gazteen partaidetzarako estrategiak txertatzea eta ikastetxeekiko lankidetzak.
- Kultura-aniztasuna bultzatzea, baita landa-eremuaren eta hiriaren arteko elkarrizketa eta trukea ere.
- Kulturak Garapen Jasangarriko Helburuei egiten dien ekarpena bultzatzea, batez ere, ingurumenaren jasangarritasunarekin lotutakoei.

Gastuen aldi hautagarria

Diruz lagundutako jarduerak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30ra bitartean egin beharko dira.

Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

Diruz lagunduko dira gutxieneko puntuazioa lortu eta **ondoan baloratu diren** eskabideak, beti ere, gutxienez **diruz lagundutako 3 proiektu** izanda, eta balorazio horren emaitzaren ordenaren eta puntuazioa kontuan hartuko da, diru-**esleipena agortu arte**. Laguntza, dirulaguntza jasotzea izango da:

- Diruz lagundu daitekeen gutxienekoa: 25.000 €.
- Gehienez ere gastu eta aurrekontu araztuen % 80a.
- Gehienez ere Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatutako zenbatekoa

*Onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio edo onartzen ez badu, erabilgarri geratzen den zenbatekoarekin ondoen baloratutako hurrengo proiektua diruz lagundu ahal izango da, eta horrela jokatu da hurrenez hurren.

- 65.084,71 €, 2022ko partiden kargura
- 43.389,81 €, 2023ko partiden kargura

Dirulaguntzak honela banatuko dira onuradun taldeen arabera:

- a) Erakunde publikoentzat, toki erakundeen elkarreentzat, eta toki erakundeen mendeko erakundeentzat, autonomikoentzat eta estatukoentzat: **(25.000 €)**.
- b) Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzat **(29.475,00 €)**.
- c) Langile Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden irabazi asmoko erakunde pribatuentzat eta profesionalentzat: **(54.000 €)**.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta deialdi bakoitzean ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa. Zehazki, honako jarduera hauek lagunduko dira diruz:

- **Ekitaldi edo ikuskizun artistikoak edo kulturalak**, jaialdiak, erakusketak eta antzeko beste kultura-jarduera batzuk, honako eremu hauetan: ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezko arteak, antzerkia, dantza, zirkua, musika, literatura eta hitza, arkitektura, diseinua eta artisautza (diziplina anitzeko jarduera artistikoak eta kultura eta arteak zientziarekin edota jakintza tradizionalarekin lotzen dituztenak barne).
- *Eragile anitzeko* partaidetzaren bidez (ideien laborategiak, proiektuen prototipoak, diziplinaz gaindiko ekimenak edo itun transektorialak), esperimazioa, ikerketa eta berrikuntza kulturalaren alde egiten duten eta lurraldean zehaztapen praktikoa duten **proiektuak**.
- **Ondare immateriala**, kulturarekin eta praktika garaikideekin lotuta.
- **Arte- eta kultura-arloko hezkuntza-, transferentzia- eta bitartekotza-jarduerak**, teknologia berrien erabilera barne

Kanpo geratuko dira honako jarduera hauek:

- Izaera artistikoa eta kulturala ez dutenak.
- Udalerrietako ohiko jai- eta erritu-programak.



- Nekazaritza eta artisautza azokak.
- Erdi Aroko azoka edo antzekoen antolaketa.
- Lehiaketa edo jarduera gastronomikoak.
- Udalerrietan turismoa sustatzeko jarduerak.
- Aisialdiko, astialdiko eta denbora libreko jarduerak, eta gizarte- eta osasun-arlokoak.